PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ EKINTZAILETZARAKO, DIGITALIZAZIORAKO, PRESTAKUNTZARAKO ETA BERRIKUNTZARAKO ASISTENTZIA TEKNIKO ETA ADMINISTRATIBOA, ETA LAGUNTZA-PROGRAMETAN ESPEDIENTEAK KUDEATZEN, IZAPIDETZEN ETA BERRIKUSTEN LAGUNTZEKO ZERBITZUEN LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA.

Sarrera

HAZI Fundazioaren asmo nagusia da elikaduraren eta zuraren balio-katea eta landa nahiz itsasertzeko ingurunearen lehiakortasuna eta jasangarritasuna sustatzea eragileekin eta erakundeekin lankidetzan osoko zerbitzua eskainiz. Gainera, lan egiten du:

- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko tresnarik eraginkorrena izateko euskal lehen sektorearen eta elikagaien sektorearen eta landa nahiz itsasertzeko ingurunearen lehiakortasuna bultzatze aldera.
- Sektoreko eta inguruneko eragile eta erakunde guztien aliaturik hoberena izateko, zerbitzu aurreratuak eskaintzearen bidez.
- Balio erantsia duten produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko bezeroei, sinergien aprobetxamendu eraginkorrari eta HAZIko unitateen potentzialaren garapenari esker.
- Ekintzailetzako eta barne-ekintzailetzako proiektuak aztertzeko, babesteko eta laguntzeko, banaka eta diziplina anitzetan, betiere elikaduraren eta zuraren balio-katearekin lotuta badaude edo landa nahiz itsasertzeko ingurunean egingo badira.
- Prestakuntza-ekintzen katalogo zabal bat eskaintzeko, eskaeraren arabera, erronka eta estrategia berriei aurre egiteko. Katalogo horren helburua da egungo profesionalei eta profesional berriei beren kualifikazio-premietan erantzuna ematea.
- Lankidetzan berrikuntza sustatzeko, negozio-ereduei balioa emateko.
- Sektorearen eta ingurunearen irudia hobetzen laguntzeko eta nazioarteko proiektu eta foroetan protagonismoa hazteko.

Kontratazioaren xede den asistentzia teknikoa beharrezkoa da EAEko elikaduraren eta zuraren balio-katean eta landa nahiz itsasertzeko ingurunean ekonomia- eta enpresa-jarduera berritzeko, digitalizatzeko, gaitzeko eta sortzeko prozesua definitzen, bultzatzen eta gidatzen laguntzeko. Zerbitzu horiek HAZIk kudeatzen ditu Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren aginpean.

Euskadi mailako enpresa-jarduera eta jarduera ekonomikoaren garapenerako esparru estrategikoa 2024ko Ekintzailetzaren Erakundeen

arteko Planean jasota dago. Bertan ekintzailetza alderdi guztietatik sustatzek ibilbide-orria ezartzen da, proiektuak, enpresak eta enplegu lehiakorrak eta jasangarriak jaiotzeko eta hazteko, Euskadiko berreskuratze ekonomiko, hazkunde inklusibo eta garapen jasangarriko etapa berri baten motor gisa.

Berrikuntzari dagokionez, eta 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak islatzen duenez, Euskadik I+G+b arloan apustu argia egin du, azkeneko hiru hamarkadetan mantendu egin dena, eta orain 2030 Horizonen islatzen dena. Ikuspuntu horren helburua da Euskadi 2030ean berrikuntza arloan aurreratuen dauden Europako eskualdeen artean kokatzea.

Halaber, Eusko Jaurlaritzak Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategia definitu du Europako estrategiaren esparruan. Gizartearen esparru guztietan hautematen den eta ekonomiari eta gizarteari eragiten dien eraldaketa digitaleko testuinguruan gaude. Jasangarritasun arloko helburuekin lerrokatuta, Europako Batzordeak Europa Digitala 2021-2027 programa ezarri du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren erregelamendu-proposamen baten bidez. Programaren helburu orokorrak EBn, Estatu kideetan eta industrian inbertsioak bultzatzea da, Europako ekonomia, industria eta gizartearen eraldaketa digitala laguntzeko, eta, aldi berean, lehiakortasuna hobetzeko, eten digitala murriztuz eta EBko autonomia estrategikoa indartuz.

Herrialdeko estrategia hori eta beste batzuk lortzeko, prestakuntza giza kapitala kualifikatzeko errazteko tresna da.

Horri dagokionez, HAZIk hainbat ekintza garatu ditu elikaduraren eta zuraren balio-kateko profesionalentzat eta EAEko landa nahiz itsasertzeko ingurunearentzat. Ekintza horiek ONekin atarian zehazten dira, eta eraldaketa digitala sustatzera, berrikuntzaren eta trebakuntzaren bidez jardueraren eta negozioaren erritmoa berreskura dadin bultzatzera eta ekintzailetza eta barne-ekintzailetza laguntzera bideratutako ekintzak gauzatzera bideratuta daude, enpresa-ekimen berriei behar duten laguntza eskainiz.

HAZI Eusko Jaurlaritzako erakunde instrumentala da, eta aholkularitza- eta asistentzia-zerbitzuak eskaintzen dizkio Sailari laguntza-programa desberdinetan:

- LGP2020ren baitan, 1. Neurria:Ezagutza edo informazioa emateko ekintzak, nekazaritza- eta basogintza-ustiategietan iraupen txikiko bisitetan edo elkartrukeetan laguntzea. HAZIk

nekazaritza-sektorera eta nekazaritzako elikagaien enpresetara hurbiltzeko laguntza kudeatzen du. Horren helburu nagusia da nekazaritza-sektorea eta balio-kateko enpresak ezagutzea eta haietara eta kate horrek ekiteko eskaintzen dituen aukeretara hurbiltzea, nekazaritza- edo elikagaigintza-enpresaren berezko jarduerak eginez, ekintzaile onuradunak sektorearen kudeaketan, funtzionamenduan eta errealitatean prestakuntza jaso dezan.

- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren **ONEKIN 2022 programa.** HAZIk erakunde laguntzaile gisa parte hartzen du. Programa horren helburua da enpresei laguntza ematea ekintzailetza- eta barne-ekintzailetzako prozesuarekin lotutako aholkularitza-zerbitzuak kontratatzeko, I+G+b arloko proiektuen bideragarritasun-azterlanak egitea, patenteak eta bestelako aktibo ukiezinak lortzea, balidatzea eta defendatzea, elikagaien segurtasunaren arloan ziurtagiri-estandarrak lortzea eta aholkularitza-lanak berrikuntza eta digitalizazio arloan.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea den jarduera beharrezkoa da HAZIren eskumeneko zerbitzua emateko; izan ere, egungo lan-karga ikusita, HAZIk ezin du eskura dituen giza-baliabideak eta baliabide-teknikoak erabiliz zerbitzu hori eman, eta ezinezkoa da edo ez da egokia hori berrantolatzea. ONekin Programaren esparruan, HAZIk prestakuntza-, digitalizazio-, ekintzailetza- eta berrikuntza-zerbitzuak koordinatzen eta eskaintzen dizkie elikaduraren eta zuraren balio-katearen arloan edo landa nahiz itsasertzeko ingurunean egingo diren proiektuak sustatzen dituzten enpresa, erakunde eta/edo pertsonei. Kontratuari esker gaur egun eskaintzen diren preskripzio eta zerbitzuen lanaren proaktibotasun-maila handituko da.

1.1 Egin beharreko lanak

1. Orokorrean, "ONekin" zerbitzuen erabiltzailearen Arretarako Zentroari erantzuna emateko jarduera oro, hala eskatzen duten honako hauei lotuta bereziki: prestakuntza eta gaikuntza, ekintzailetza eta berrikuntza, elikaduraren eta zuraren balio-kateko eta landa nahiz itsasertzeko inguruneko enpresei laguntza eta informazioa emateko.

2. Prestakuntzaren arloan garatu beharreko jarduera espezifikoen artean, besteak beste, honako hauek azpimarratu behar ditugu:

   - Prestakuntza-jardueren katalogoari lotutako kontsulten arreta eta zerbitzuari lotutako izapideak.

   - Espedientea irekitzea eta prestakuntza-jarduera bakoitzera lotutako dokumentazioa prestatzea eta kudeatzea (programa, ikastaroa baloratzeko inkesta, bertaratze-kontrola, etab.).

   - Parte hartzen duen prestakuntza-ekintzekin lotutako zereginak kudeatzea: Ikastaroan izena ematea, izena emandako kolektiboa hautatzen laguntzea, hautatutako kolektiboari jakinaraztea eta matrikulatzea, hautatu ez den kolektiboari jakinaraztea, etab. Taldea osatzen ez bada, ikastaroa bertan behera uztea edo atzeratzea eta izena emandako kolektiboari jakinaraztea.

   - Material didaktikoa prestatzen laguntzea. Irakasleei aldez aurretik material didaktikoa bidaltzea eskatzea, dokumentazioa eskatutako formatura egokitzea (dagozkion logoak ezartzea eta finantzaketa-iturria), etab.

   - Prestakuntza-jardueren ordainketak egiaztatzea eta ikastaroari lotutako dagozkion fakturak bidaltzea.

   - Ziurtagiriak bidaltzea, aldez aurretik bertaratzea, gaitasuna etab. egiaztatuz.

   - Astero HAZIko edozein egoitzara (Arkauti, Abadiño edo Donostia) bertaratuko da, kudeatutako prestakuntza-jardueren dokumentazioa bidaltzeko eta dagokion jarraipena egiteko. Aldi berean Enplegurako Prestakuntzaren taldearekin koordinatuko da.

   - Prestakuntza-jarduerei lotutako administrazio-lanetan parte hartzea eta prestakuntza-zerbitzuetara lotutako protokoloak betetzea.

3. Digitalizazioaren, ekintzailetzaren, barne-ekintzailetzaren eta berrikuntzaren arloko eremuan garatu beharreko jarduera zehatzen artean honako hauek azpimarratu behar dira:

   - Digitalizazioari, ekintzailetzari, barne-ekintzailetzari eta berrikuntzari lotutako "ONekin" zerbitzuen erabiltzailearen Arretarako Zentroari erantzuna ematea, HAZI Fundazioak

emandako dokumentazioa eta dosierra oinarri hartuta.

- Eskatutako informazioa ez badago emandako dosierrean jasota, eskaera dagokion lantaldeari bidali beharko zaio (ekintzailetza eta/edo berrikuntza) xede horretarako gaitu diren bitartekoen bidez.
- Esparruari lotutako beharrezko dokumentu guztiak egitea.
- Argitaratuko diren jarraipen-txostenak egiten laguntzea.

4. Enpresei bideratutako zerbitzuak eta programak dinamizatzeko laguntza-tresnak eta jarduera diseinatzea:
   - Deialdien gidak egitea, maiz egiten diren galderekin eta adibide-kasuekin.
   - Berri/elementu dibulgatzaileak garatzea.
   - Bezeroaren karakterizazioa eta analisia.
   - Enpresen dinamizazioa laguntzea.
   - Euskadiko elikaduraren eta zuraren balio-katearen garapen jasangarrian lagunduko duten jarduera guztiak.
5. Kontratuak iraun bitartean, espedienteei lotutako dokumentazioa kudeatzen, izapidetzen eta berrikusten laguntzeko zereginak garatuko dira, HAZIk ekintzailetzaren, berrikuntzaren eta digitalizazioaren esparruan parte hartzen duen laguntza-programetan.
   - Erabiltzailearen Arretarako Zentroa izatea eta sortzen diren eta laguntza-programa desberdinen oinarrietan jasota dauden eta sortzen diren oinarrizko mailako zalantzei erantzutea. Planteatutako zalantza ezin bada argitu zalantzaren zailtasun-maila dela-eta, dagokion talde-teknikora bideratuko da, ezartzen diren bitartekoak erabiliz.
   - Lantaldeei aholkularitza-administratiboko zerbitzua eskaintzea.
   - Aurkeztutako espedienteei lotutako laguntza-programetan eskatutako dokumentazioa egiaztatzea eta zuzena dela egiaztatzea.
   - Bi dokumentazioak kontrastatzea, eta, beharrezkoa izatekotan,

dagokion zuzenketa eskatzea.

- Zuzenketarako eskatutako dokumentazioak ezarritako irizpideak betetzen dituela egiaztatzea.
- Egindako lanen egoeraren berri ematea astero lantaldeei.
- Laguntza-programen prestakuntza teknikoetan parte hartzea, eta espedienteen adminsitrazio-kudeaketarako ezartzen den aplikatiboan trebatzea.

1.2 Enpresa adjudikaziodunaren erantzukizuna:

Oro har, enpresa adjudikaziodunak erantzukizun hauek izango ditu:

- Zerbitzua martxan jartzea eta betetzea.
- Zerbitzua emateko beharrezkoa den azpiegitura izatea, kudeatzea eta eguneratuta mantentzea.
- Zerbitzuaren etengabeko kontrola ahalbidetuko duten egoera-txosten definituak entregatzea.
- Egindako lanen aurrerapenak astero gehitzea HAZIn horretarako gaitutako sistemaren bidez.
- Beharrezko komunikazioa bermatzea HAZIko arduradunek beharrezko ezagutza izan dezaten.
- Kasu guztietan, eta berariaz gai zehatz baterako baimendu ezean, HAZIko langileekin joan beharko da HAZIren edozein bulegotara, haren bezeroenetara edo erakunde laguntzaileenetara.
- Eskatutako profil-profesionala duten langile teknikoak zerbitzura adjudikatzea.
- Zerbitzuaren kalitatea bermatzeko adostutako informazio-sistemak elikatzea

2. LANTALDEA

Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren xede diren lanak egiten dituen bitartean hitzematen du HAZIren Proiektuaren Zuzendaritzak izendatutako

pertsonei eskatutako informazio eta dokumentazio oro emango diela, garatzen ari diren lanen erabateko ezagutza izan dezaten, baita egon daitezkeen arazoen berri eta horiek konpontzeko erabilitako teknologia, metodo eta tresnen berri ere.

ESPARRU TEKNOLOGIKOA

Kontratu honen abiapuntu izango den lan-testuingurua zehaztuko da jarraian, lanaren eskakizunen edo beharren ondorioz egon daitezkeen aldaketei kalterik egin gabe, Proiektuaren Zuzendaritzarekin adostu ondoren.

- Sharepoint esparruak.
- OneDrive partekatutako karpetak.
- Prestakuntza, ekintzailetza eta laguntza-programak kudeatzeko tresnetarako sarbidea.
- Enpresa adjudikaziodunak proposatutako tresnak, HAZIk onartu ondoren.

LANARI ADJUDIKATUTAKO BALIABIDEAK

Lanerako ekipamenduak enpresa kontratistarenak izango dira.

Laneko ekipamenduetako beharrezko lizentziak enpresa kontratistaren kargura izango dira.

LANTALDEA

Proposatutako lantaldea beharretara egokitutako espezializazio-maila duten maila profesionaleko langileek osatuko dute.

Lizitatzaileak hitzematen du, adjudikazioduna izanez gero, talde hori mantenduko duela Proposamen Teknikoen Agirian ezarritakoaren arabera eta berariazko jarduera bakoitzean finkatutako aldian. Kontratuaren betearazpenari adjudikatutako pertsonak hasieratik egon beharko dira izendatuta. Pertsonak aldatu edo ordeztuz gero, aurrez HAZIri jakinarazi beharko zaio, gutxienez zerbitzuaren kritikotasunaren arabera behar den adinako aurrerapenarekin, eta beti ere gehienez 15 egutegi-egun lehenago, eta HAZIk onartuko edo atzera botako du aldaketa edo ordezkapen hori. Edonola ere, ordezkoak edo ordezkoek ordezkatu beharreko pertsonak eskainitakoaren antzeko profila izango dute.

Langileen ordezkapenak direla-eta lan-ingurura eta proiektura egokitzeko egon daitezkeen zailtasunak teilakatze-aldien arabera konponduko dira behar den denboran eta **inolako gastu gehigarririk** gabe. HAZIko Proiektuaren Zuzendaritzaren arabera horrelakorik ezin bada egin, ordezko(ar)en lehenengo **hiru lan-asteak** ez dira fakturagarriak izango

eta adjudikaziodunaren kontura izango dira.

HAZIk zerbitzuetara adjudikatutako pertsonak aldatzeko eska dezake, baliabideak egokiak ez direlako edo eskatutako kaudimen arloko baldintzak eta baldintza teknikoak betetzen ez dituztelako edo kontratistak egiazkoak ez diren inguruabarrak adierazi dituelako; horrelakoetan, kontratua hutsaldu ahal izango da eta kalifikazioen arabera ondoren dagoen lizitatzaileari adjudikatu lanak. Aldaketa horretarako, aurreko paragrafoko baldintzatzaileak ezarriko dira.

Lantaldearen hasierako eraketa

Kontratua formalizatu ondoren lanak egiten hasiko den talde teknikoa adjudikazioko eskaintzan zerrendatutako kideek eta profilek osatuko dute, horien arabera egin baitzen balorazioa.

Adjudikazioren ondoren proiektuko taldea eskaintza teknikoan ezarritakoarekin bat ez datorrela ikusten bada, administrazio-agiriko 20. eta 21. ataletan deskribatutako elementuak ezarri ahal izango dira.

Lanak egiteko ordutegia eta tokia.

Lanak erakunde adjudikaziodunaren egoitzan egingo dira, eta HAZI Fundazioaren egoitzetan egiten diren aldizkako lanen kasuetan, honako hauek **izango dira baldintzak:**

- Oro har, lantaldeko kideek adjudikaziodunaren jabetzako hardwarea eta softwarea erabiliko dute lana egiteko, HAZIk adjudikatutako baliabideekin egingo dena salbu.

- Lanaldia zatitua izango da: goizez, 08:00etatik 13:30era, eta arratsaldez, 15:00etatik 17:00etara.

Jakintza transferitzea

Adjudikaziodunak kontratuaren xede diren lanak egiten dituen bitartean hitzematen du HAZIren Proiektuaren Zuzendaritzak izendatutako pertsonei eskatutako informazio eta dokumentazio oro emango diela, garatzen ari diren lanen erabateko ezagutza izan dezaten, baita egon daitezkeen arazoen berri eta horiek konpontzeko erabilitako teknologia, metodo eta tresnen berri ere, lanen garapenaren hirugarren fasean azaltzen denaren arabera.

JARRAIPEN-, KONTROL- ETA IKUSKAPEN-MEKANISMOAK.

Zerbitzuaren kalitatearen kontrola eta jarraipena HAZIko Proiektuaren Zuzendaritzak egingo du.

Lantaldea proiektuaren arduradun batek zuzenduko du eta dedikazio finkoa eta behar adinakoa izango du, proiektuan zerikusia duten zereginak koordinatuko ditu eta HAZIko Proiektuaren Zuzendaritzarekin solaskide nagusia izango da.

Zehaztutako helburuak epeetan eta amaierako kalitatearen terminoetan etengabe betetzen direla egiaztatzeko kontrol-mekanismo guztiak ezarri beharko dira. Horretarako, honako hauek egitea aurreikusten da:

- Jarraipen-bilerak astero
- Zereginak gainbegiratu egunero
- Lanen egoeren jakinarazpena astero
- Kontrol ekonomikoko bilerak
- Lanen kontrol-orriak: hala badagokio

Atal honetan sartuko dira: proiektuaren kudeaketa zuzena bermatzeko lizitatzaileak ezarritako neurrien deskripzioa; ezarri beharreko kontrol- eta jarraipen-mekanismoak; kalitatea ziurtatzeko prozesuak; eta kontratua behar bezala betetzen dela zaindu eta bermatzeko aurreikusten diren gainerako neurriak.

- Jarraipen- eta kontrol-prozesuak
- Txostenak
- Adierazleak

Proiektuaren zuzendaritza eta ikuskapena proiekturako izendatutako HAZIko langileek egingo dituzte.

Laneko produktuak adjudikaziodunaren Proiektuaren Arduradunak nahiz HAZIko Proiektuaren Zuzendaritzak onartu beharko dituzte; produktuekin ados badaude, aldeko txostena egingo dute eta une horretan hasiko da zenbatzen kanpoko edozein lanek izan beharreko bermealdia, egindako probetan hauteman gabeko akatsak egon baitaitezke.

Jasotako produktuekin ados ez egoteak, bai aurrez ezarritako entrega-planarekiko irismen funtzionalari dagokionez, bai horien kalitate-mailari dagokionez, fakturazio-plana geldiaraztea eragin dezake, desadostasunak konpondu arte.

Oharra: Proposamen Teknikoaren Dokumentazioan ez da inondik eta inora ere informazio ekonomikoa jarriko.